EUSKARARAREN HILABETEA

2018ko otsailaren 28tik martxoaren 23ra

EUSKARALDIA *rekin* BAT

LH3 eta DBHko ikasleen lanak

Ayuntamiento Udala

irun

www.irun.org

AGURRA

Kaixo gazte

Patricia Suarez idazleak dio denok ezagutzen dugun Txanogorritxuren istorioa, "irabazleek" idatzitako istorioa dela eta nekez ezagutzen dugula Otsoaren bertsioa. Denok dakigun bezala istorio batean ulertzeko modu ezberdinak daude, ikuspegi ezberdinak (hitzezko kodea, soinu-kodea, kode ikonikoa...) istorioa kontatzen duen narratzailearen arabera. Zer gertatuko zen Txanogorritxoren istorioan Otsoa narratzailea izan balitz?

Idazle argentinarrak Otsoak edukiko lukeen papera mahaigaineratu du eta bere ustez hau esango luke hark:

"Gertatzen dena zera da: Txanogorritxuk nik baino prentsa hobea izan zuela. Jakina: hain liraina, hain goxoa, hain xuabea... neska bat!...gero kazetariek eta ipuin kontalariek ni ikusi ninduten: handia, iletsua, belarri-handiduna, hortz-handiduna... Itxura basatia dudala diote baina 14 urte dira begetarianoa naizela. Nire irudia garbitzen saiatu nintzen baina norbaiten etxetik gertu nagoenean eskopeta hartzen dute eta niri tiroa bota!"

Horregatik, zuek istorio bat idazten duzuenean egindazue fabore bat: jarri zaitezte prentsa txarra duen haren lepoan eta "de paso" prentsa txarra duten zuen ikaskideen lekuan...

Ez al dira Otsoa bezala prentsa txarra duten baina ulertzen ez ditugun begetarianoak izango?

Irunen, 2018ko martxoan
Mónica MARTÍNEZ NOTARIO
EUSKARA ORDEZKARIA

.....

Irunero

ARGITARATZAILEA:

837 Comunicación y Publicidad S.L.

MAKETAZIOA: Joseba Arozena.

LEGE GORDAILUA:
SS-230-94

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

AURKIBIDEA

BELASKOENEA
- Maddalen eta izurdea 4

DUNBOA
- Plastiko gehiegi itsasoan 5

TXINGUDI IKASTOLA
- Bertso saioa prestatzen 6

EGUZKITZA
- Inauteriak 6
- Bihotza 14
- Abenturak 20

ELATZETA
- Olerkiak 7

HIRUBIDE
- Egunerokoa 8
- Gutuna 15

IRUNGO LA SALLE
- Egunerokoa 9
- Bertsoak 16
- Euskararen Eguna 21

EL PILAR
- Patxi Zubizarreta 10
- Nire toki kuttunena 17
- Argiren irribarrea 22

LEKAENEA
- Minimun kaxa 11

TOKI ALAI
- Zientzialariak gara 12
- Aubixa barnetegia 18

SAN VICENTE DE PAUL
- Egunerokoa 13
- Txisteak 19
- Santo Tomas San Vicente eskolan 23

Itsaso eta Diema

Behin batean Izar izeneko neska bat paseoan zihoan Itsaso ondoan. Halako batean, neska bat ikusi zuen etxe batean, oso triste. Etxe hartan giltzatuta zegoen, atera ezinik. Diema izena zuen neskak, eta esan zion etxera sartzeko. Diemak esan zion Izarri ez zela gogoratzen zen nola iritsi zen etxera.

Momentu hartan, gizon gaizkilea agertu zen, eta neskak korrika atera ziren etxetik. Izarren amonaren etxera joan ziren. Etxea mendian goian zegoen, eta uste zuten gaizkilea ez zela hara joango. Baina ilundu zenean, gauean, gaizkilea agertu zen kanpoan. Trumoiak entzuten zituzten Izarrek eta Diemak, eta oso beldurtuta zeuden.

Izarrek telefonoz poliziari deitu zion. Polizia etorri zen eta gaizkile maltzurra atxilotu egin zuen.

Izar eta Diema oso pozik geratu ziren, eta betirako lagun onak izan ziren.

BELASKOENEA ESKOLA- 3.ZIKLOA

Maddalen eta izurdea

Bazen behin Maddalen izeneko neska bat. Oso ederra zen eta ile kizkurra zuen. Herri txiki batean bizi zen, itsaso ondoan.

Egun batean, itsasoan itsasontzi txuri bat ikusi zuen. Bere aitarena zen, eta arriskuan zegoen, zurrunbilo baten erdian zegoelako. Maddalen asko kezkatu zen, aitaren itsasontzia itzulika ikustean.

Baina, halako batean ur-azpitik izurde bat atera zen. Izurdea Maddalenen lagun zen, eta txistua jo zionean izurdea Maddalenen aitari laguntzea joan zen. Itsasontzia zegoen lekura joan zen, eta, aita uretan igeri eta ia itotzen ari zela, muturrarekin lagundu zion hondartza aldera joaten.

Gero, Maddalen eta aita etxera joan ziren. Dutxa bat hartu zuen aitak eta berogailuaren ondoan jarri zen. Ondoren, Maddalenek eta aitak bazkari goxoa prestatu zuten eta dena ondo bukatu zela ospatu zuten.

BELASKOENEA ESKOLA- 3.ZIKLOA

KONTSUMO JASANGARRIA (AGENDA 21) 3. ZIKLOA

PLASTIKO GEHIEGI ITSASOAN !!!

BAZENEKIEN?

- Urtean 300 milioi tona plastiko sortzen dira munduan.
- Itsasoko hondakinen % 75 plastikoak dira.
- Lau milioi bat hegazti eta ehun mila ugaztun eta dordoka hiltzen dira plastikoen erruz adituen esanetan eta itsas espezien % 90 plastikozko produktuak irentsi izan dituzte noizbait.
- Itsas hondoetako plastiko pilaketak fotosintesia ongi egitea galarazten du.
- Plastiko horien % 20 itsasontziek botatzen dituzte eta gainerako guztiak kostaldetik iritsiak dira.
- 2050. urtean arraina baino plastiko gehiago egongo da itsasoan.
- Guk erabiltzen ditugun plastikoek bizitza motza dute: erabili eta bota egiten ditugu (ur botilak, yogurt poteak, poltsak....)

ZER EGIN DEZAKEGU GUK?

- **Kontsumoa MURRIZTU.**
- **BIRZIKLATU** ETXEAN,ESKOLAN,LANTEGIETAN .....
- **BERRERABILI.**
- EZ BOTA **PLASTIKORIK ERREKETARA EZTA ITSASORA ERE.**

INGURUMENA ZAINDUZ GU GEU ZAINTZEN ARI GARA!!!

DUNBOA IKAS-KOMUNITATEKO 6. mailakoak



EGUZKITZA LH3

SARRERAKO BERTSOAK 6.D EUSKARAREN EGUNA
2017

Hemen gaude guztiok
ongi etorri esanez
Hurbildu zaretenei
eskerrak emanez
Kostata egindako
bertso polit batez
Alai gaitzazue arren
zuenak entzunez

Egun bateko lana
erraza betetzen
Euskarari emateko
gutxisko ote den
Bitartean alaitsu
indarrak metatzen
Ongi pasa guztiok
Euskaraz mintzatzen

EUSKARAREN EGUNA

Urtero bezala 6.mailako ikasleei egokitu zaigu "Euskararen Eguneko" bertso emanaldia antolatzea eta gidatzea.

Urtero,gelaka,emanaldiko atal batez arduratzen gara.Lan guzti hori taldeka lantzen dugu gelan.Txingudi Ikastolan 5 gela ditugu,honela banatzen ditugu lanak:

1.-Aurkezpena,saioaren gida lanak eta sarrerako bertsoa paratu.

2.-Puntuak bota.

3.-Oinak eman.

4.-Gaiak jarri.

5.-Bukaerako bertsoa paratu.

Esan bezala lanketa hori taldean eta kooperazioan egiten dugu.

Aurten,6.D-ko ikasleon zeregina aurkezpena,saioaren gida lanak eta sarrerako agur bertsoa paratzea izan da. Gidoia prestatu,gure arteko bi lagun aukeratu aurkezle izateko,...denon artean egiten dugu.Baina interesgarriena eta dibertigarriena sarrerako bertsoa asmatzea izan da.Lehendabizi gure gustuko eta ongi barneratua dugun doinua aukeratzen dugu. Ondoren,zer idatzi nahi dugun zehaztu eta oinak (...) idazten ditugu arbelean,taldeka bi bertso antolatzeko.Txikitatik ikastolan bertsoak entzun izanak,kantatzeak eta neurriak ezagutzeak asko lagundu digu betebehar honetan. Bukatzeko,egokienak aukeratzen ditugu,koadernoan idatzi eta buruz ikasi.

Egunean bertan,D.B.H.-ko areto nagusian zain genituen bi bertsolariak,biak Txingudi Ikastolako ikasle ohiak.Eta 5. eta 6. mailako ikasle eta irakasle guztiak irrikitan saioa hasteko.Berehala jarri genituen bertsolariak gure aginduetara lanean.

Atseginena eta dibertigarriena bertsolarien saio librea izan zen,gure artean ibiltzen dira "segidilak" kantatzen. Gai batetik bestera pasatzen dira gutako edonor hizpide hartuta,izan ikasle edo irakasle.Gure jantziak,keinuak,ileak...aipatu eta oso kopla politak botatzen dizkigute.Denok izan nahi dugu koplagai!!

Disfrutatu genuen benetan!! Eta bukaeran betiko oihuak: "beste bat!! beste bat"

Datorren urtera arte!!

Txingudi Ikastolako 6.D mailako ikasleak.

TXINGUDI IKASTOLA LH3

GURE OLERKIA

- Oztadarreko erregina,
- Udaberrian jantziurdina eta argia,
- Azkarra eta Arina

Ze ote da?



Tximeleta

Txokolatezko bolatxoa,
guria eta gozoa,
barnean sorpresatxoa.

Zer ote da?

Kinder Arrautza

Ane S.

Olerkia

Abaniko izatza dauka
eta ditu pare bat hanka
burlatzaile bukaina
mugitzen du migaina

Uxue eta Ander

Nire Eguneroko Literarioa

2017/11/13 (23:47 P.M.)

Kaixo Justiniano.
Gaur bigarren aldiz idazten dizut. Bai, arraroa da, baina beharra daukat. Goizeko kezka kontrol bati buruz zen, baina hau askoz inportanteagoa da. Asteak daramatzat kezkaturik. Bihar piano kontzertua daukat, eta ez dut uste lo egingo dudanik. Normalean lasai egoten naiz, baina gaurkoa desberdina da. Biharko kontzertua nire bizitzako kontzertua da. Gaizki jotzen badut, ate guztiak itxiko dira. Pianoa jotzen hasiko nintzateke, baina ordu hauetan, nire gurasoek jipoituko nindukete.

Leihotik begira nago, izarrak eta konstelazioak desberdintzen. Zorionez, ez dago hodeirik zeruan. Nire mahaiko lanpara piztuta, eta lo ezinik gabe eserita nago idazmahaian eserita. Gauean beti pentsatzen nago, eta ordu hauek arte egoten naiz hemen eserita, normalean koaderno batean idazten. Urduri al nago? Bai. Ez_nuke ordu hain berandu arte gelditu behar._Eta. Inporta zait? Ezer ere ez.

2017/11/14 (10:28 a.M.)

Gaurko kontzertua gero eta hurbilago dago. Eskuak izerditan blai ditut, eta hotz ikaragarria sentitzen dut nire barnean. Zergatik hain urduri naiz jartzen? Gustatuko litzaidake hau guztia azkarrago pasatzea, horrela ez izatea. Izerdia garbituz gero, berriz ateratzen da. Bi ordutan kontzertua daukat. Ez dakit nola joko dudan, nire eskuak ez baitira gelditzen. Berriz leihotik begira, baina orain dena hodiekin. Urduriago nago, eta ezin naiz saiatu praktikatzen, ez naizelako kontzentratzen. Niregan daukadan mesfidantza_hau guztia ez da ezertan bihurtuko kontzertuan egoterakoan, nire buruko pentsamendu guztiak iluntasun gris bat bihurtuko direlako. Eskuak pianotik irristatuko dira, eta minutu erdi batean dakidan guztia erakutsi beharko dut.

Andoni Carrascosa
Hirubide BHI 2.D

ITSU BATEN EGUNEROKOTIK HARTUTA

2017ko urtarrilaren 5a, osteguna

Gaur Errege Magoen jaiaren bezpera da eta Kabalgata izan da. Ni beti joaten naiz amarekin kabalgata ikustera eta gozokiak hartzera. Beno, "ikusi"... Itsua naizenez, nik ez dut besteek bezala ikusten, baina nire inguruan dauden gauzak asko sentitzen ditut, agian besteek baino gehiago.

Nire lagunek kabalgatan parte hartu dute, kabalgata barruan zeuden. Horregatik, nire ondoan pasatzean eta ni ikustean, izena ozenki entzuten nuen: "Kaixo, Joooon! Pozik jartzen nintzen eta nire lagunak dotore-dotore jantzita imajinatzen nituen. Amak azaldu dit nola zeuden jantzita. Nik ere kabalgatan atera nahi nuen, baina amak ez dit utzi. Itsua naizenez, esan dit ezin naizela atera. Zergatik? Norbaitek laguntzen banau?

Aurten Baltasarrek gauean liburu bat ekarriko didala esan dit. Baina ez liburu normal bat, ez; Braille sisteman idatzitako liburua baizik, atzamarren bidez irakurtzen diren liburu horietako bat. Horrela, inoren laguntzarik gabe irakur dezaket, edozein momentutan. Ze gogo handiak ditudan bihar ailegatzeko!

2017ko maiatzaren 14a, igandea.

Gaur goizean, gurasock oso ilusio handiz esnatu naute. Nire urtebetetzea da! Gosari espeziala izan dut, betiko Kolakaoa ohean hartu dudalako.

Eguerdian, jatetxe batera joan naiz familia osoarekin. Janaria oso ona zegoen eta oso gustura hartu dut. Amak, jan eta gero, oparia eman dit: Errealaren partidu bat ikusteko lau sarrerak, aitarekin eta bi lagunekin joateko. Oso pozik geratu naiz eta oso urduri nago zeren laster izango da partidua eta lagunek 12 urteko opari berezi bat prestatu didate han ematelco.

Arratsaldean, lagunekin Burger King-era joan naiz eta opari eta marrazki polit-politak eman dizkidate. Hanburgesa oso ona zegoen eta denok oso azkar bukatu dugu txiki-parkera joateko.

Oso ondo pasatu dut han, nire lagunek lagunduta. Momentu batean pertsona batek bultzatu nau eta kolpe ederra jaso dut buruan.

Etxera ailegatzerakoan, izotz pixka bat jarri didate buruan Gero, afaldu, hortzak garbitu eta ohera etorri naiz.

2017ko abuztuaren 10a, osteguna.

Gaur hondartzara joan naiz lagunekin. Lau ginen. Gogo handiak nituen eta oso ondo pasa dut. Baina ez zait batere gustatu gertatu den gauza bat. Beldur handia pasa dut eta oso minduta geratu naiz.

Hondartzan, etzanda eguzkia hartzen geundela, Anderrek bainu bat hartzea erabaki du eta joan da. Denok bere atzetik uretara joan gara. Eta uretan jolasten ari ginenean, bat-batean Ekaitzek esan du:
-Zer da hori?
-Uste dut... marrazo bat dela!- erantzun du Josebak
-Marrazo bat? Lagundu, mesedez! Ez utzi bakarrik hemen! Ez dakit non dagoen itsasertza!
Baina ez dut erantzunik jaso. Bakarrik jendearen ahotsak entzuten nituen eta olatuen soinua, baina lagunenak ez. Oso urduri nengoen. Gertu, ni nengoen tokitik metro batzuetara zerbait handia zegoela sentitzen nuen. Asko ikaratu naiz. Eta bat-batean:
-Jon, gezurra dela! Txantxetan geunden! Ez dago marrazorik!
-Baina nik zerbait sentitu dut nigandik gertu!-esan dut kezkatuta oraindik.
Uretatik atera gara. Orduan pixkanaka lasaitu egin naiz. Baina lagunekin asko haserretu naiz. Itsua naizela aprobetxatu dute broma bat egiteko. Oso broma astuna eta maltzurra izan da. Ni itsua izateagatik ez didate hori egin behar. Ez al dira konturatzen horrelakoetan itsua izaterakoan okerrago pasatzen dudala? Galduta sentitu naiz eta arrisku baten aurrean nengoela. Beldur handia pasa dut.

Azkenean, gertatutakoa barkatu diet eta eguzkia hartzen jarri gara berriro bainujantzia lehortu arte. Gero hondartzatik atera gara etxera joateko. Haiek bere aldetik joan dira eta ni kotxez ekarri naute etxera gurasock.

Egileak: Nira Alonso, Daniel Cañamero, June Torrado Irungo La Salle 6. maila

Patxi Zubizarreta

Patxi Zubizarreta Ordizian (Gipuzkoa) 1964ko urtarrilaren 25an jaio zen. Euskal Filologiako ikasketak Gasteizen egin zituen. Helduen literaturan eta itzulpengintzan lan asko egindakoa den arren, haur eta gazte literaturan argitaratutako lanengatik, bereziki, ezaguna da.

Berak hamahiru sari lortu ditu, horietako hiru Haur eta Gazte literaturaren Euskadi Sariak dira: 1998an, *Gizon izandako mutila*; 2006an, *Pantaleon badoa*; eta 2010en, *Xia Tenzinen bidaia miresgarria*. Horrez gain, kolaboratzaile lanak egin ditu hainbat hedabideetan.

Bere liburu batzuk hauek dira: *Elefante bat hegan*; *Pikolo*; *Beroki Gorria*; *Usoa, hegan etorritako neskatoa*; eta *Mundua baloi batean*.



Blanca Garrido

LH 6. Maila

EL PILAR IKASTETXEA- MARIAREN LAGUNDIA

MINIUM KAXA

Aurten, 5. mailako ikasleok, eskulan ugari egin ditugu urtean zehar, horien artean, "Minium kaxa". Zuek ere horrelakoa egin nahi baduzue, bildu beharrezkoa den materiala eta jarraitu ondorengo pausoak:

MATERIALA

- Goma EVA: horia, urdina, beltza, grisa,zuria
- Silikona beroa
- Pistola
- Paperezko hodi txiki bat
- Plastiko gardena
- Zuzenkia
- Errotulagailua edo boligrafo bat
- Guraizeak

NOLA EGIN

Lehenik paperezko hodia moztu bi zatitan (6,5 cm-koa).
Gero, goma EVArekin bi zatiak estali eta kolatu.
Kontuz egin, hodiaren beheko aldean, 5,5 cm-koa izan behar da. Goiko aldean berriz, 1cm luzeago moztu.
Ondoren, burua eta oinarria goma EVArekin estali eta ondo itsatsi.
Jarraian, jantzia egin eta kolatu panpinaren gainean.
Panpina osatzeko, besoak eta eskuak moztu eta itsatsi gorputzean.
Bukatzeko, begia betaurrekoduna egin eta itsatsi goiko aldean.

LEKA-ENEA 5.MAILA

ZIENTZIALARIAK GARA!!!

Gelan laborategiko jarduerak egiten ditugu gauza ezberdinak konprobatzeko.

Oraingo honetan argi zuria beste koloreetan nola deskonposatzen den ikusi dugu.

Horretarako material ezberdina erabili dugu: kartoi zati bat, erregela, margoak, guraizeak eta artilea.

Hau da jarraitu dugun prozedura:

Lehenengo, kartoian 10 cm-ko erradioko zirkulu bat marraztu dugu.

Gero zirkulua sei zati berdinetan banatu dugu eta zati bakoitza kolore batez margotu dugu. Ortzarradaren koloreak izan behar dira orden honetan: gorria, laranja, horia, berdea, urdina eta morea.

Ondoren, borobila moztu dugu eta borobilaren erdian bi zulo egin ditugu, beraien artean 2 cm-ko distantzia egon behar da.

Hurrengo pausoa zuloetatik artilea sartzea da eta artilearen bi puntuak lotzea.

Bukaeran, artilearen bi aldeak heldu, borobila erdian mantendu eta buelta asko eman ditugu, indarrez artiletik tira egin dugu. Diskoak bueltak emango ditu eta kolore zuria ikusiko da.

Ondorioak:

Emaitza ez da berdina izan kasu guztietan, batzuetan kolore zuria ikusi da, argi zuria ortzadarraren kolore guztien elkarketa delako. Besteetan, kolore zuria ikusi ordez, urdin argia nabaritu da gehiago.
Egileak: Vita – Anna – Elena – Uma

2018ko urtarrilaren 15a

Gaurko eguna oso motza izan da!

Oso goiz jaiki naiz; ohea egin, gosaldu eta hortzak garbitu ditut. Bost minutu geroago arropa egokia jarri eta ogia erostera atera naiz. Bidean nire lagun bat aurkitu dut eta berarekin piska bat hitz egiten geratu naiz. Hitz egin ondoren ogi dendara heldu naiz, baina itxita zegoen.
Kaka zaharra!!! Guri bakarrik okindegi horretako ogia gustatzen zaigunez gosaria aldatu beharizan dugu. Gustora ibili naiz.
Etxera bueltatu naizenean susto handia hartu dut, nire ahizpa soinurik egin gabe esnatu baita. Elkarrekin telebista ikusi dugu ordu erdi batez eta geroago aiton-amonen etxera joan gara bazkaltzera.
Arratsaldean etxean geratu gara pelikula batzuk ikusten. Nire aita gozoki-dendara joan da gozoki batzuk erostera. Baina nire ama eta ahizparentzat bakarrik izan dira niri ez zaizki dalako gustatzen. Gaizki sentitu naiz orduan.
Gauean, afaria oso goroa izan da eta afaldu ondoren amak oparitutako margoekin marrazki bat egin dut. Nik uste dut marrazkia oso polita geratu dela, gauean amestu dudana marraztu dudalako eta oso arrets polita izan da. Marrazkia gorde dugu eta oheratu gara.
Oso ondo sentitu naiz.



Bihotza

Beñat, Markel eta Unax (Eguzkitza BHI/2.B)

Begi polit horiek,
Ikusten ditudan
bakoitzean
biHotza taupadaka hasten
zait
eta hOtzikara
baTzuek inguratzen naute
Zu zarelako nire
ipar poloko izArra !!!!!!.

NIRE BIHOTZA:

- **Triste nagoenean,** oporretatik eskolara itzultzean bezala sentitzen naiz. Haserre, zer egin jakin gogorik gabe.
- **Pozik nagoenean,** azterketa batean 10 atera dudanean bezala sentitzen naiz. Salto batez ilargira iritsiko nintzateke!!!!!!.
- **Haserre nagoenean,** [illegible] bezala sentitzen naiz: ernia.
- **Minduta nagoenean,** bihotza taupadaka hasten zait. Partida batean momentu garrantzitsu batean nagoenean bezala.
- **Beldurrez nagoenean** Bakarrik sentitzen naiz, irtenbiderik gabe. Labirinto batean bezala.

BIHOTZA GAIA ETA NEREA

POZA: Poza sentitzen dugunean, gure bihotza handitu egiten da eta besteei poza transmititzen diegu.

TRISTURA: Triste gaudenean, gure bihotzaren gainean hodei [illegible] handia ematen du eta bihotza txikitzen da.

BETI
ELKARREKIN GAUDENEAN
POZ HANDIA SENTITZEN DUT
BIHOTZEAN
ETA IRRIBARRE
ZABALA JARTZEN
ZAIT AURPEGIAN

Eguzkitza BHI: Gaia eta Nerea. 2.A

Kaixo Lucas!

Zer moduz zaude? Lehengo egunean zure amarekin aurkitu nintzen eta injekzio berri bat jarri dizutela esan zidan. Oso harro nago zutaz, badakit zaila izan daitekeela batzuetan, baina jakin ezazu zurekin egongo naizela momentu txar horietan. Nik ez dut inoiz horrelakorik sentitu, baina imajina dezaket zure sufrimendua. Nik ezingo nuke horrelakorik jasan. Horregatik nire laguntza eskaintzen dizut zure lagun eta aholkulari bezala. Nik asko maite zaitut eta ez dut zuk gaizki pasatzerik nahi.

Luze aritu naiz pentsatzen eta konturatu naiz ez dela emozionala bakarrik, fisikoki ere "roilo" bat dela. Ezin dezaket imajinatu nolako aldaketa fisikoak jasan behar izan dituzun zure bizitzan zehar. Baina ez naiz hain sentimentala jarriko, zeren ez baita dena txarra. Momentu on asko dauzkat buruan; parkean ginenean eta mutil batzuk zuregana gerturatu zirenean eta zurekin ligatzen hasi zirenean. Bat batean zuri gauza txarrak esaten hasi ziren eta zuk irribarre handi batekin aurka egin zenien. Ez dut inoiz ahaztuko jarri zuten aurpegia, ez zenien utzi zuri minik egiten eta hori asko miresten dut zugan. Edozein egoeratan zu zarela eta ez beste inor. Ez zaizula inoiz axola besteek pentsatzen dutena eta bakarrik zuk nahi duzuna egiten duzula. Asko gustatuko litzaidake zu bezalakoa izatea eta gehiago luzatu gabe, espero dut oso ondo pasatzea Gabonetan. Ea laster elkar ikusteko aukera dugun... Bitartean jaso ezazu besarkada potolo bat nire partetik!!

Nahikari Pérez
Hirubide BHI 3.C

Euskararen eguna ospatzeko bertsoak:

1) Etxetik etorri naiz
irrikaz klasera
abesteko asmoaz
ondo pasatzera
trai lara lai
ondo pasatzera (BIS)

2) Euskararen eguna
ospatzen eskolan
Bikain pasako dugu
guztion artean
trai lara lai
guztion artean (BIS)

3) Poza, alaitasuna
daude gure festan
Lehiaketa ospatuz
ta barrez klasean
trai lara lai
barrez klasean (BIS)

4) Bertso, txiste, piropo
daukagu buruan
Gozatzeko asmoa
dugu guk gaurkoan
trai lara lai
dugu guk gaurkoan (BIS)

5) Hemen bukatzen dugu
eszenatokian
Egun zoragarria
pasatuz eskolan
trai lara lai
pasatuz eskolan(bis)

6) Irabazi ta gero
denok ospatzera
lagunekin egonda
gero gure etxera
trai lara lai
gero gure etxera (BIS)

Irungo La Salle
1.D-ko ikasleak

Doinua: ama begira zazu

HENDAIAKO HONDARTZA

Udarako egun aspergarri, eta nekezetan, ezer egiten ez nagoenean, izugarri gustatzen zait, oso ondo eta erabat alai sentiarazten nauen leku zoriontsu eta dibertigarri batera joatea nire lagun eta familiarekin. Leku hau da, nola ez, Hendaiako hondartza da.

Amaierarik gabeko alfonbra *beige* batek laztanak egin dizkit sartu naizen heinean. Oso gustura eta eroso nago, goxo-goxo, sumendi baten laba baino beroago den hego-haizea sumatuz. Sinestezina da paisaia liluragarri eta atsegin hau, horren lasaia, trankila, baketsua, batere zaratarik gabekoa. Hain da barea, non hareazko ozeano zabal honetan, nire ahotsa bakarrik entzuten dudan.

Urrutira begiratzean, urdin koloreko kontraste desberdinak bereiz ditzaket, nire estutxeko zenbait *Plastidecor* balira bezala. Itsasontzi fiimiño batzuk ere ikus ditzaket, itsasoaren erdian, osteguna astearen erdian dagoen bezala. Orain ur fresko, baino epelean nago, bertan, urrun ikusten diren bi munstro aztertuz; bikiak izango ote dira?

Olatuak noraezean dabiltza, harriak lotan daude, hondarra pilatuta dago, baina nik joan beharra daukat, Euskarako etxerako lanak bukatzera.

Iñigo Elizetxea

DONOSTIAKO PASEO BERRIA

"Etxeko lanak, azterketak, aurkezpenak..." Burutik pasatzen zaidan bakarra da egun hauetan. Egonezina, urduritasuna, beldurra, kezkak... Eskerrak deskonektatzeko aukera dudan . Azken finean, Donostiako Paseo Berritik ibiltzean, larritasun guztiak itsasoak eramaten ditu.

Beti bezala, ibilbidea jendez beteta. Baina nire eskubitara begiratzean, paisaia eder-ederra ikusi dut. Eguraldi ezin hobea, zerua inoiz baino urdinagoa, guztiz garbia, ezta kotoizko goxoki baten aztarrenik ez da ikusten. Burua makurtu, eta, han zegoen, itsasoa. Plater bat bezain laua, geldi geldia. Ura inoiz baino lasaiago dago, ni bezala. Hala ere, olatuen soinu etengabea entzun dezaket, arrokekin liskarretan balebiltza bezala.

Dena leku perfektuan dagoela diruri; norbaitek osagai bakoitza hartu, eta apropos hor kokatu izan balu bezala, pizzaren antzera. Azkenean, biok hobeto sentitu gara.

Burua altxatu, eta Igeldoko irlaren zuhaitzetan jarri dut arreta. Brokolia etortzen zait burua. Brokoli erraldoiak! Janarian pentsatzean, neure sabelean lurrikarak sentitu ditut. Erlojuari begiratu eta... Ene! Ordu honetan afaltzen egon behar nintzen!

Leire Goikoetxea

Bukatzean, maletak itxi eta Irunera bueltatu ginen.

Andrea Viñuela

Toki Alai BHI

AUBIXA BARNETEGIA

2017ko azaroaren 6an, ordu eta erdiko bidaia egin ondoren, Elgoibarreko "Aubixa" barnetegira ailegatu ginen.

1. egunean, maletak hustu eta gero, monitoreek barnetegiko funtzionamendu eta antolaketa azaldu zizkiguten. Arratsaldean, bazkari bikaina izan ondoren, egongela erakutsi ziguten; han, jokoak, musika jartzeko aparatua, DVDa eta marrazteko txokoa zeuden. Azken honetan, paper handi bat geneukan, bertan monitoreek inprimatutako argazkiak itsasteko eta marrazteko. Ondoren afaldu, jolastu eta lotara joan ginen, nahiz eta batzuek hitz egiten jarraitu zuten.

Hurrengo goizean San Pedrora joan ginen eta *Altxorraren bila* aritu ginen. Azkenean, altxorra Aubixan zegoen eta egun hartan zegoen eguraldiarekin galtzak, galtzerdiak, ilea... busti genituen ezertarako. Altxorrak mineralak eta txokolatezko txanponak zituen.

Arratsaldean, berriz, etxe barruan egon ginen joko batzuetara jolasten. Gainera, egongelan abestiak jarri eta denok elkarrekin abestu genituen. Galdara ez zebilela esan ziguten eta dutxetan ur beroik ez zegoela. Ez dakit nola baina, hoditeria antzeko batzuekin, gela batera ur beroa eramatea lortu zuten eta bi taldetan banatu ginen: neskak gelatxo horretan eta mutilak Maritxuren (etxeko jabearen) bainugelan. Zorionez, egun horretan oso neska gutxi dutxatu ginen eta ez genuen denbora gehiegirik behar izan. Arazo hau konpondu eta gero, afaldu, jolastu eta lotara joan ginen.

Hirugarren egunean, hau da, asteazkenean, Kalamua mendira joan ginen. Barnetegitik ateratzean laino handia zegoen eta eguna hotza, baina argitzean izugarrizko paisaia ikusi ahal izan genuen. Zoritxarrez, gailurrera iritsi ginenean, 1 mailako bi ikasle erori ziren. Batek arnasteari utzi egin zion baina berehala pasa egin zitzaion. Besteak berriz, belauna urratu eta min hartu zuen. Han, gailurrean, joko batzuk egin genituen. Jaitsi eta bazkaldu ondoren, abestu genuen hango monitore batek eskumuturrekoak eta beira-alezko irudiak egiteko modu interesgarri bat erakutsi zigun.. Egun honetan, neskak Maritxuren bainugelan dutxatu ginen baina mutilek garaiz bukatu zutenez, neska batzuk gelatxora joan ziren. Beste lagun bat eta ni dutxan ginela, argiak piztu eta itzaltzen aritu ziren guk oihu eta barre egiten genuen bitartean. Ondoren, afaldu, eskumuturreko eta iruditxoak egin eta ohera joan ginen.

Azken eguna iritsi zen eta bideo batzuk ikusi genituen, haien artean, lau egun hauetan zehar guri egindako argazkiak biltzen zituen bideo musikatua zegoen. Maletak erdi-eginak zeudela, gela batean elkartu ginfuzten eta eta banaka-banaka bertan pasatako egunen inguruan gauza politak esaten aritu ginen alde egiteko ordua iritsi arte.

TXISTEAK

-Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:
-Mediku jauna,arazo bat daukat.Nire puzkarrek ez dute usainik.
-Hori ez da posible!Beta ezazu bat orain!Hemen!
-PPPPPRRRRRR!
-Hori larria da.Ebakuntza behar duzu.
-¿Purdian?
-Ez,gizona,sudurrean.

-Bittor negarrez eskolatik dator eta amak galdetu dio:
-Zer duzu Bittor,horrenbeste negar egiteko?
-Anderenak zigortu egin nau...
-Hara!Eta zergatik zigortu zaitu?
-Bere galderei erantzuteagatik.
-Gaizki erantzun diozu,noski...
-Ez,ez.Nik ondo erantzun diot...
-Zeinek sartu duen sagua bere poltsan galdetu du eta nik izan naizela erantzun diot.

Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa.
– Zenbat hezur dauzka zure gorputzak ?
– 208, jauna – erantzun du ikasleak.
– Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur bakarrik dauzkala guza gorputzak?
– Bai, baina ... gaur oliba hezur bat irentsi dut.

Haur batek dio amari ikastolatik etxera joandakoan:
– Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehenengoa oso ona da: matematikan 10 atera dut.
– Oso ongi, oso ongi!
Eta zein da bigarren notizia? -galdetzen dio amak.
– Be, lehenengo notizia gezurra dela.

Bittor negarrez eskolatik dator eta amak galdetu dio :
– Zer duzu Bittor, horrenbeste negar egiteko?
– Anderenak zigortu egin nau ...
– Hara! Eta zergatik zigortu zaitu?
– Bere galderei erantzuteagatik.
– Gaizki erantzun diozu, noski ...
– Ez, ez. Nik ondo erantzun diot .... Zeinek sartu duen sagua bere poltsan galdetu du eta nik izan naizela erantzun diot.

Nola esaten da
"Olimpiadetarako leku ona"
Euskaraz

TOKIOn

Ume bat bere aitari:
-Aita, aita, aita!! Utziko ahal didazu telebista ikusten??
-Bai! Baina piztu ez!

Hugo Rodriguez

TXISTEAK

Eskolan andereñoak kontrol bat jarri die ikasleei eta Matteok mutil bati kopiatu egin dio.
-Matteo, kopiatu duzu!
Esan dio andereñoak
-Nola dakizu hori!
Dio Matteok
Zure ondoko 4. galdera ez dakiela jarri duelako eta zuk "nik ere ez" jarri duzulako!

Bazegoen mutil bat hain baxua hain baxua zela, kanika bat hartu zuenean esan zuela -Mundua nirea da!

Seme bat bere aitari dio:
-Aita! Aita! Handia naizenean zu bezalakoa izan nahi dut.
+Ni bezalako aziama zatoke?
-Ez! Ni bezalako seme bat izateko!

Ume baten ama semeari:
-Etorri hona, zure aitaren eta nire eskontzaren argazkiak erakutsiko dizkizut.Begira! Hor zure aita da.
+Hor!??Orduan nor da gurekin bizi den lodikote burusoil?

Seme bat aitari:
-Utziko al didazu telebista ikusten?
+Bai, baina piztu ez.

AMAZONIAKO ESPEDIZIOA

Noak saskibaloiko liga amitu zuen. Oso estresatua zegoenez, Amazoniara bidai bat antolatu zuen , zerbait desberdina egiteko.Amazoniara iritsi zenean , Letica izeneko herrira abiatu zen. Herri horretan begetazio asko zegoen: zuhaitz berde - berdeak, ikaragarri handiak, zeuden edonon.
Bat batean Noa Leticako hotelera hurbildu zen bere aitari deitzeko:
-Kaixo aita! Iritsi egin naiz Leticara.
-Zein ondo! , bidaliko dizkidazu argazki batzuk, ezta?-esan zuen aitak.
-Bai, noski bidaliko dizkizut nire espedizioaren argazkiak. Agur aita, muxu bat eta zaindu.
Noa informazio zonaldera joan zen , eta piramide batera espedizio bat antolatzen zutela entzun zuen , orduan, xehetasunak galdetu ondoren izena eman zuen. Hurrengo egunean autobusa hartu zuen piramidera joateko. Bidean... (Jarraituko du)

Encko Fernandez , Xabi Gebers (Eguzkitza BHI/2.B)

ABENTURAK MUNDUAN

ZEHAR

B-22 hegazkina aireportu militarrean sartu zen. Barrutik soldadu asko atera ziren, bi neska ilehori beraiekin kateatuta ekartzen. Bi neskak Nelaim eta Itan ziren. Biak Moskun zeuden bidaian, polizia batek bi espia estatubatuar ezagunekin nahastu arte. Horren ondoren, soldaduz beteriko kartzeletan pasatu zituzten zenbait aste norbaiti base militar honetara joateko ordua zela iruditu zitzaion arte. Orainaldira itzulita, soldaduen eta nesken taldetxoa basera sartua zen. Gela ilun batean utzi zituzten esplikaziorik gabe, eta hamar minutu itxoin zituzten gelan tipo baxu batek atea ireki arte.
-Kaixo, nire izena Dimitri da, eta lehen ministro errusiarra naiz.
Hegazkinez etorri naiz hona, esan didatenean bi espia estatubatuar aurkitu dituztela.
-Kaguen la letxe! Guk ez dugula ezer egiiiin!
-Hori esango luke edozein espia estatubatuarrak! Bi ordu barru, errusiar tribunalaren aurrean zuen krimenak aitortuko dituzue, eta zorte pixka batekin 50 urteko kartzela zigorra izango duzue!
-Ezzz! Esan zuten bi neskek batera.
-Hortik ateratzerako orduan alfonbra batek baino zimur gehiago izango ditut!
Dimitri gelatik atera zen, eta orduan Nelaimi aurpegia alaitu zitzaion.
-Zer? - Esan zuen Itarik
-Dimitri horrek atea irekia utzi du,ihes egin dezagun! ..(Jarraituko du)

Garai Etxeberria/ Eguzkitza BHI. 2.D

Txirrina jotzean

Irungo La Salle

3.D-ko ikasleak

EUSKARAREN EGUNA OSPATZEN...

Ikastolan hemen gaude gu
euskararen eguna da-ta
domina irabaziko degu
epaileen eskutatikan.
Eskolako kantariak gara
o(ho)Itza gainean gaude(e)nak
klasean egindako lan handia
aretora ekarri degu.
Irungo kaletik gora
euskara doukagu ahoan
euskaraz hitz egitean
poza dugu bihotzean.
Ikastola hemen gaude gu
euskararen eguna da-ta
domina irabaziko degu
epaileen eskutatikan.

La Salleko eskolan

dago ikurriña

Denok batera goaz

korrika aretora.

Epaileen aldetik

Nahi dugu domina

Elkar ospatzen dugu



ARGIREN IRRIBARREA

Bazen behin Argi izeneko dordoka, zortzi urtekoa eta Irunen bizi zena. Argik ez zuen inoiz irribarrerik egiten, bere bizitza oso tristea zelako.

Kalean beti jendea ikusten zuen eta Argi, geroz eta tristeagoa jartzen zen horri ikustean.

Egun batean, ondoko etxera Keny kanguroa etorri zen bizitzera. Hasieratik Kenyk oso jator jokatu zuen eta egunero joaten zen Argiren etxera txirina jotzera, baina Argik oso lotsatia zenez, ez zion atera irekitzen.

Hala ere, kanguroak egunero dordokaren etxera joaten jarraitzen zuen. Astebete pasa zen eta Argik erabaki zuen Keny ezagutzea. Orduan, atea ireki zuen eta Kenyrekin jolasten hasi zen. Jolasten ari ziren bitartean Kenyk tontakeria asko egiten zituen Argik barre egin zezan, baina ez zuen lortzen irribarrerik.

- Zergatik ez duzu inoiz irribarre egiten? – galdetu zion Kenyk.

- Nik ez dut inoiz barrerik egin, ez zait gustatzen – erantzun zuen Argik.

Keny harrturik geldítu zen, hala ere egunero saiatzen zen bere lagunari barre egin arazten. Denborak aurrera egiten zuen, baina ez zuen ezer lortzen, orduan gure Keny oso triste jarri zen. Argik hau ikusi zuenean, kezkatu zen eta pentsatu zuen saiatu behintzat egin behar zuela. Honela bada irribarre egiten hastea erabaki zuen bere laguna alai zedin.

Kanguroak Argiren irribarrea ikusi zuenean guztiz poztu zen eta bihotzez eskertu zion. Betirako lagun minak izan ziren!!

EL PILAR IKASTETXEA – DBH3
ANDREA A. -IÑIGO I. – NAHIA B. -IKER T.

SAN TOMAS SAN VICENTE ESKOLAN

San Tomas eguna Euskal Herriko ospakizun ezagun bat da non bertako biztanleek Euskal Herriko tradizioez, ohiturez eta gastronomiaz gozatzen duten.

San Vicente Ikastetxeak erabaki zuen hemen bertan ospatzea, jokoak antolatuz, txistorra janez eta gabon kantekin prestatutako dantzaldiak eginez.

Lehenik eta behin, 4. mailako ikasleek joko batzuk antolatu zituzten goiz osoa elkarrekin barrez egoteko eta denak giro ona izateko elkarren ondoan.

Geroago, dantzaldia prestatzen hasi ginen 4. mailako ikasleen laguntzarekin. Pixkat nekatuta egon arren, atseden izugarri bat izan genuen AMPAk antolatutako txistorradarekin.

Bukatzeko, eskolako aretoan dantzaldia hasi zen. DBHko gela bakoitzak prestatutako dantzaldiak erakutsi behar zituen. Dantzaldi guztiak ikusi eta gero, gela bakoitzeko ordezkariek, botoa eman behar izan zuten. Boto guztiak jasotzean, irabazi zuen mailak zinemara joateko aukera izan zuen.

EUSKARALDIA

Euskararen Hilabetea 2018

Irun